

# Homero Karibekoa

---

JOANNES JAUREGI

«[...] itsasoaren orrialdeak  
irakasle absente batek irekita utzitako liburu bat dira».

Derek Walcott, *Another Life*

«Derek Walcott Karibearen bihotz lirikoa zen, zabala eta sakona, bere uhartearen itsasertzak bustitzen zituen itsasoa bezala. Bisan tan joana natzaio etxera, eta inbidia eman didate haren bakartze apartak eta itsasoarekiko loturak. Bere arrano-habia koxkorrean sartu, eta mundua aparte uzten zuen; idazten aritzen zen, eta uretatik tontortzen ziren harkaitzak eta itsas muino ikonikoak pintatzen zituen, itsaso egonezin haren erdian bere bakartasun betea bikoitzuz bezala». Hitz ederrok idatzi zituen Wole Soyinka nigeriar idazleak 2017ko martxoan, Derek Walcott zenu berritan, eta nago asmatu zuela adierazten ezinezkoa dela Walcotten begirada poetikoa Karibeko itsaso-lurretatik bereiztea. Nahiz eta urteen korritzean haren idazlanak mundu zabalean leitu diren, eta bera ere hainbatetan aldatu zen atzerrira, Derek Walcotten poesiak beti jo izan zuen jaioterriko paisaietara eta giroetara, Karibearen itsasoko zein lehorreko eremuetara, eta iruditeria hori guztria bere zeruertz poetiko propioan jokatu zuen.

Derek Anton Walcott 1930eko urtarrilaren 23an jaio zen, Mendebaldeko Indietako Santa Luzia uhartean. Antzerkigintzan eta pinturan ere jardun zen gaztetandik, baina poeta izatea zuen ezaugarri printzipala. Hamalau urte zituela publikatu zuen lehen poema, Santa Luziako egunkari batean, eta, geroago, hogei urte bete gabea zela, *25 Poems* [25 poema] izeneko bilduma bat autoeditatu zuen. Harrezkerotik, Walcott etorri handiko idazlea izan zen, eta berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidea ondu zuen. 1992an, Literaturako Nobel saria irabazi zuen, eta ia hil arte jardun zen lanean.

Walcotten poesia bi ibilgu nagusitan sardetzen da: badu, bateko, Antilletarako joera atergabe bat, uharte-giro horretatik hartzen baititu hala paisaia naturalen iruditeria nola gai poetikoak ere, hots, Karibeko historia, hango kolonialismoaren ondorenak, kari-betar jende askotarikoaren biziera. Besteko, Walcottek ezin saihestuzkoa du Mendebaldeko literatura klasikorako bulkada ere, zeina poesiaren mamian islatzen baitzaio


forman bezala; sarri aipatzen ditu Europako humanismoaren erreferenteak, eta tradizio horren oihartzunak ugariak dira Walcotten literatura-moduetan ere. Halatan, Homeroren gisako erreferenteak Karibeko andrezionen destinoarekin mazatzaten dira. Walcotten Akiles ez da Mediterraneoaren altzoan borrokatzen den heroi greziarra, baizik eta Antilletako uretan nekatzen den karibetar arrantzalea. Mendebaldearen argikontra, kolonialismotik eta mestizajetik adarkatzen diren gaiei bestelako ertz ugari azaleratzen zaizkie.

Estilo trinkoa du Walcotten poesiak. Sintaxi soila erabiltzen du, itxura batean, bai elipsiak eta hiperbatonak ere ugari, eta bertso-lerroak zangalatrauz eta etenez eba-itzeko joera dauka. Robert Gravesek berak esan zuenez, Walcotten hizkuntza-senak bere garaiko idazle gehienek baino hobeto entenditzen zuen «[ingeles-]hizkuntzaren barne-magia». Walcotten inglesa, halarik ere, metropolitik urruti dago, kreolerazko hitzek eta Karibe aldeko formulazio eta adierazpideek blaitzen dute-eta, bai eta hanga landareen, animalien, jakien izenek ere. Errealitate horixe adierazten baitu, azken finean.

Haren lanen artetik, *Omeros* liburua jotzen da Walcotten poesiaren gailurtzat; hain zuzen, aurten dira hogeita hamar urte plazaratu zela. Homeroren *Iliada* berrinterpretatzen duen poema epiko luze bat da, Danteren *terza rima* gogoratzen duten hiru

lerroko ahapalditan emana. Poemaren zazpi liburuetan barrena, Troiako gerra kontatzen da, baina Karibean girotuta, arrantzaleen arteko gatazka bat balitz bezala. Arrunt gorai-patua izan da poema, besteak beste, luzera epiko horretan hartzen duen sakoneragatik, «Karibeko esperientziaren alde ia guztiak» jasotzen dituelakoan. *Another Life* [Beste bizitza bat] liburua ere aipatzeko modukoa du Walcottek. 1972an argitaratu zuen, autobiografia poetiko gisa, eta, *Omeros* bezala, poema epiko luzearen forman emana dago. Lan horren «eskala ozeanikoa» ere laudatua izan zen oso; adjektibo ezin aproposagoa da hori, hain zuzen, ikusita zeinen presentzia bizia duen itsasoak Walcotten obra osoan. Karga sinboliko handiko irudi unibertsala da itsasoa, dudarik gabe, baina Walcotte-nean bere aiurri poetikoaren araberako ñabardura bat ere hartzen du, ozeanoa Mendebaldearekiko (eta munduarekiko) zubi eta harresi den heinean.

Antologia txiki eta nahiko apetatsu honetako olerki gehienetan ere itsasoa da irudi nagusia. Gehienak Walcotten gaztetako zenbait sortatatik atereak dira: 1962ko *In a Green Night* [Gau berde batean], 1965eko *The Castaway and Other Poems* [Naufragoa eta beste poema batzuk] eta 1976ko *Sea Grapes* [Itsas mahatsak] poema-liburuetatik, besteak beste. Beste antologia batean ere agertzen dira horietako gehienak, 1986. urteko *Collected Poems, 1948-1984* sortan [Poema bilduak, 1948-1984].



### Prelude

I, with legs crossed along the daylight, watch  
The variegated fists of clouds that gather over  
The uncouth features of this, my prone island.

Meanwhile the steamers which divide horizons prove  
Us lost;  
Found only  
In tourist booklets, behind ardent binoculars;  
Found in the blue reflection of eyes  
That have known cities and think us here happy.

Time creeps over the patient who are too long patient,  
So I, who have made one choice,  
Discover that my boyhood has gone over.

And my life, too early of course for the profound cigarette,  
The turned doorhandle, the knife turning  
In the bowels of the hours, must not be made public  
Until I have learnt to suffer  
In accurate iambics.

I go, of course, through all the isolated acts,  
Make a holiday of situations,  
Straighten my tie and fix important jaws,  
And note the living images  
Of flesh that saunter through the eye.

Until from all I turn to think how,  
In the middle of the journey through my life,  
O how I came upon you, my  
Reluctant leopard of the slow eyes.

## Preludio

Ni, zangoak eguzkipean trabeskaturik, begira nago  
Nola metatzen diren laino-ukabil nabartuok  
Ene uharte ahuspezu honen hazpegi lakarretan.

Bizkitartean, zerumugak partitzen dituzten baporeek  
Galduak garela erakusten digute;  
Aurkituak  
Turisten eskuorrietaan bakarrik, prismatiko sutsuen atzean;  
Aurkituak urdin islatzen diren begietan  
Zeinek ezagutu baitituzte hiriak eta hemen zoriontsu uste baikaituzte.

Denbora ezarian datorkie esperoa gehiegi luzatzen dutenei,  
Eta nik, hautu bat egin baitut,  
Jakin dut aienatu zaidala umezaroa.

Eta nire bizitza, goizegi denez noski zigarreta sakonerako,  
Eskutoki jiraturako, aitzoa orduen hesteetan  
Jiratzeko, ez dago zertan jendaurreratu  
Harik eta bertso janbiko zorrotzeta sufritzen  
Ikasten dudan arte.

Errepasatzen ditut noski agerraldi bakarto guztiak,  
Egoerak opor egiten ditut,  
Gorbata artezten dut eta importante-matrailezurra jartzen,  
Eta ikusten dut haragizko imajina  
Biziok pasieran doazela begian barrena.

Noizbait apartera noan arte, pentsatzera nola,  
Nire bizitza zeharkatzen duen bidaiaaren erdian,  
Oi, nola aurkitu zintudan zeu, ene  
Lehoinabar uzkur eta begi-geldoia.

### Islands

*For Margaret*

Merely to name them is the prose  
Of diarists, to make you a name  
For readers who like travellers praise  
Their beds and beaches as the same;  
But islands can only exist  
If we have loved in them. I seek,  
As climate seeks its style, to write  
Verse crisp as sand, clear as sunlight,  
Cold as the curled wave, ordinary  
As a tumbler on island water;  
Yet, like a diarist, thereafter  
I savour their salt-haunted rooms  
(Your body stirring the creased sea  
Of crumpled sheets), whose mirrors lose  
Our huddled, sleeping images,  
Like words which love had hoped to use  
Erased with the surf's pages.

So, like a diarist in sand,  
I mark the peace with which you graced  
Particular islands, descending  
A narrow stair to light the lamps  
Against the night surf's noises, shielding  
A leaping mantle with one hand,  
Or simply scaling fish for supper,  
Onions, jack-fish, bread, red snapper;  
And on each kiss the harsh sea-taste,  
And how by moonlight you were made  
To study most the surf's unyielding  
Patience though it seems a waste.

## Uharteak

*Margaret-i*

Horiek izendatzea beste asmorik ez du  
Diaristen prosak, zuri ospea ematea  
Irakurleen artean, bidaztiekin bezala aintzatzen baitituzte  
Beren oheak eta plaiak, gauza bera direlakoan;  
Baina uharteak ez dira existitzen  
Bertan maitatu gabeak bagara. Saitzen naiz,  
Klimak estiloa saiatzen duen antzera, bertsoa ebakitzentz  
Hondarra bezain karraskari, eguzkipea bezain argi,  
Olatu kizkurra bezain hotz, edalontzia  
Uharte-uretan bezain arrunt;  
Baina, diaristak bezala, harrezkerotik  
Gatzak sorgindutako gelak dastatzen ditut  
(Zure gorputzak nola harrotzen duen  
maindire birrinduen itsaso izurtua), non ispiluetatik joanak diren  
Gure imagina lokartu, bil-bil eginak,  
Amoreak erabili espero zituen izenak bezalakoak,  
Marearen orriean ezabatuak.

Eta, diarista bat hondarretan bezala,  
Ohartu naiz zer bakerekin edertu dituzun  
Zenbait uharte, eskailera estu batean  
Behera, lanparak argitzera  
Marea gautarraren hotsen kontra, esku batekin  
Mantu dantzari bat ezkutatuz,  
Edo simpleki afaritarako arraina zurituz,  
Tipulak, txitxarroa, ogia, lutiano gorria;  
Eta musu bakoitzean itsasoaren gustu lakkarrak,  
Eta nola sortu zinen ilargitean  
Areago estudiatze aldera marearen pazientzia  
Etsigaitza, alfer-lana dirudien arren.

### The Castaway

The starved eye devours the seascape for the morsel  
Of a sail.

The horizon threads it infinitely.

Action breeds frenzy. I lie,  
Sailing the ribbed shadow of a palm,  
Afraid lest my own footprints multiply.

Blowing sand, thin as smoke,  
Bored, shifts its dunes.  
The surf tires of its castles like a child.

The salt green vine with yellow trumpet-flower,  
A net, inches across nothing.  
Nothing: the rage with which the sandfly's head is filled.

Pleasures of an old man:  
Morning: contemplative evacuation, considering  
The dried leaf, nature's plan.

In the sun, the dog's feces  
Crusts, whitens like coral.  
We end in earth, from earth began.  
In our own entrails, genesis.

If I listen I can hear the polyp build,  
The silence thwanged by two waves of the sea.  
Cracking a sea-louse, I make thunder split.

Godlike, annihilating godhead, art  
And self, I abandon  
Dead metaphors: almond's leaf-like heart,

## **Naufragoa**

Begi gosetuak itsas bistak galkatzen ditu  
Bela-mokadu baten bila.

Zerumugak infinituki ehuntzen du.

Ekitea, frenesiaren hazi. Hemen natza,  
Palmondo-itzalaren saihetsetan nabigatuz,  
Ez dadin, ni beldur, nire pausorik ugal.

Hondar haizatuak, kea bezain mehe,  
Asperturik, dunak mudatzen ditu.  
Marea nazkatu da bere gazteluez, haur bat bezala.

Aihen-belarren gatz berdekara eta txilintxa-lore horia,  
Sarea, pittinka, ezerezean aurrera.  
Ezereza: hondar-euliari kaskoa betetzen dion amorrua.

Agurearen plazerak:  
Goiza: kontenplazioan libratzea, konsideratuz  
Hosto sikitua, naturaren plana.

Eguzkitan, zakurraren gorotza  
Zarakartuz doa, korala bezala zurituz.  
Lurrean azkentzen gara, lurretik gara sortzen.  
Geure erraietan, genesia.

Adia zorroztu, eta polipoaren eraketa entzuten dut,  
Itsasoko bi olatuk isiltasunaren ezkilak jo dituzte.  
Itsas zorri bat kraskatu, eta trumoia bitan zatiarazten dut.

Jainkozko izanik, goi-goikoa, artea  
Eta nia triskatuz, bazter uzten ditut  
Metafora hilak: almendraren bihotz hostokara,

The ripe brain rotting like a yellow nut  
Hatching  
Its babel of sea-lice, sandfly, and maggot,

That green wine bottle's gospel choked with sand,  
Labelled, a wrecked ship,  
Clenched sea-wood nailed and white as a man's hand.

### **Missing the Sea**

Something removed roars in the ears of this house,  
Hangs its drapes windless, stuns mirrors  
Till reflections lack substance.

Some sound like the gnashing of windmills ground  
To a dead halt;  
A deafening absence, a blow.

It hoops this valley, weighs this mountain,  
Estranges gesture, pushes this pencil  
Through a thick nothing now,

Freights cupboards with silence, folds sour laundry  
Like the clothes of the dead left exactly  
As the dead behaved by the beloved,

Incredulous, expecting occupancy.

Burmuin umoa intxaur horixka bat bezala usteltzen,  
Txitatzen  
Itsas zorri, hondar-euli eta harren nahaskia.

Ardo-botila berde haren ebanjelioa, hareatan itoa,  
Etiketa eta guzti, barku porrokatu bat,  
Itsas ohol ukabildua, iltzatua eta zurbila, gizonaren eskua nola.

### **Itsasoaren hutsa**

Urrutiko zerbaitek orro egiten du etxe honen belarrietan,  
Gortinak zintzilikatzen ditu haizerik gabe, ispiliak zurtzen  
Harik eta islei substantzia falta zaien arte.

Soinuren bat, haize-erroten zirti-zarta  
Jo eta bertan etetea bezalakoa;  
Absentzia baten sorgorra, haizetea.

Haran hau inguratzen du, mendi hau pisatzen,  
Keinua arrozten, eta lapitz hau ezerez  
Mardul batean barrena bultzatzen,

Armairuak isiltasunez zamatzentzu, gobada mindua tolesten du  
Hilen arropak bezala, zehatz-mehatz utziak  
Hilak maiteen aldamenean portatzen ziren bezalaxe,

Ezin sinetsirik, noiz okupatuko dituzten zain.

### Return to D'Ennery; Rain

Imprisoned in these wires of rain, I watch  
This village stricken with a single street,  
Each weathered shack leans on a wooden crutch,  
Contented as a cripple with defeat.  
Five years ago even poverty seemed sweet,  
So azure and indifferent was this air,  
So murmuous of oblivion the sea,  
That any human action seemed a waste,  
The place seemed born for being buried there.

The surf explodes  
In scissor-birds hunting the usual fish,  
The rain is muddying unpaved inland roads,  
So personal grief melts in the general wish.

The hospital is quiet in the rain.  
A naked boy drives pigs into the bush.  
The coast shudders with every surge. The beach  
Admits a beaten heron. Filth and foam.  
There in a belt of emerald light, a sail  
Plunges and lifts between the crests of reef,  
The hills are smoking in the vaporous light,  
The rain seeps slowly to the core of grief.  
It could not change its sorrows and be home.

It cannot change, though you become a man  
Who would exchange compassion for a drink,  
Now you are brought to where manhood began  
Its separation from “the wounds that make you think”  
And as this rain puddles the sand, it sinks  
Old sorrows in the gutter of the mind;

Where is that passionate hatred that would help  
The black, the despairing, the poor, by speech alone?  
The fury shakes like wet leaves in the wind,  
The rain beats on a brain hardened to stone.  
For there is a time in the tide of the heart, when

**D'Ennery-ra bueltan; euria**

Eurizko soka hauetan preso, kale bakarra  
Nozitzen duen herri honi so nago,  
Etxola higatu bakoitzak egurrezko makulu bat du berme,  
Elbarria porrotean bezain kontentu.  
Duela bost urte pobrezia berak dultza zirudien,  
Hain zen azula eta indiferentea aire hau,  
Hainbeste marmartzen zuen itsasoak ahanztura  
Ezen edozein giza ekintzak alfer-lana zirudien,  
Tokiak bertan lurperatua izateko jaioa ematen zuen.

Mareak zapart egiten du  
Betiko arrainen ehizan dabiltzan artazi-txorietan,  
Euria uharteko bide landugabeak lokazten ari da,  
Eta norberaren dolua guzton desiran urtzen da.

Ospitalea isilik dago european.  
Mutiko biluzi batek sasi artera daramatza txerriak,  
Itsasaldi bakoitzak kostaldeko dardaratzentzat. Hondartzak  
Koartzita garaitu bat onartzen du. Lohia eta aparra.  
Argi esmeraldazko zerrenda batean, bela bat  
Arreñafe-gandorrean sartu-atera dabil,  
Muinoei kea darie argiaren baporetan,  
Euria astiro barrentzen da nahigabearen mamian.  
Ezingo lituzke saminak trukatu eta etxeen egon.

Ez dauka aldazerik, nahiz eta zu zurruta erruki truke  
Hartuko lukeen gizon bat bilakatu,  
Orain ekarri zaituzten lekuaren hasi zen gizontasuna  
«Zauri pentsarazle» horietatik bereizten  
Eta euri honek, hondar-putzutan bildu ahala, samin zaharrak  
Gogoaren estolderian hondoratzen ditu;

Non da pasiozko gorroto hori, lagun luketena  
Beltzek, etsituek, txiroek, mintzo hutsarekin?  
Amorrua haizean piririka doa, hosto melatuen antzera,  
Euriak burmuin harri bihurtu bat kolpekatzen du.  
Bihotzaren itsasaldiak bai baitu garai bat non,

Arrived at its anchor of suffering, a grave  
Or a bed, despairing in action, we ask,  
O God, where is our home?  
For no one will save  
The world from itself, though he walk among men,  
On such shores where the foam  
Murmurs oblivion of action, who raise  
No cry like herons stoned by the rain.

The passionate exiles believe it, but the heart  
Is circled by sorrows, by its horror  
And bitter devotion to home.

The romantic nonsense ends at the bowsprit, shearing  
But never arriving beyond the reef-shore foam,  
Or the rain cuts us off from Heaven's hearing.

Why blame the faith you have lost? Heaven remains  
Where it is, in the hearts of these people,  
In the womb of their church, though the rain's  
Shroud is drawn across its steeple.  
You are less than they are, for your truth  
Consists of a general passion, a personal need,  
Like that ribbed wreck, abandoned since your youth,  
Washed over by the sour waves of greed.

The white rain draws its net along the coast,  
A weak sun streaks the villages and beaches  
And roads where laughing labourers come from shelter,  
On heights where charcoal-burners heap their days.

Yet in you still seeps, blurring each boast  
Your craft has made, obscuring words and features,  
Nor have you changed from all of the known ways  
To leave the mind's dark cave, the most  
Accursed of God's self-pitying creatures.

Oinazearen aingurara iritsirik, hilobi  
Ala ohe, ekintzan etsita, itauntzen dugun  
O, Jainko, non dugu etxea?  
Inork ez baitu mundua  
Bere buruagandik salbatuko, nahiz gizaki artean ibili,  
Itsas aparrak ekintzen ahaztura marmartzen duen  
Itsasertz horietan, euriak harri egin dituen koartzen  
Txilioak bezalakorik gabe.

Erbesteratu kartsuek sinesten dute, baina bihotza  
Saminek inguratzen dute, haren horroreak  
Eta etxearen debozio mingotsak.

Absurdo erromantikoa masprezan finitzen da, haizetan ebakitzentz  
Baina sekula iritsi gabe koral-itsasertzaren aparrez harago,  
Euriak Zeruaren entzumenetik apartatzen gaitu bestela.

Zergatik egotzi errua galdu duzun fedeari? Zeruak han dirau,  
Dagoen lekuaren, jende honen bihotzean,  
Haien elizaren umetokian, nahiz euriaren  
Beloak kanpandorrean estali.  
Haiek baino gutxiago zara, zure gaztaroa  
Pasio axaleko bat baita, norberaren behar bat,  
Nola hondoa jotako saihets-hezurrokin, zure gaztarotik abandonatuak,  
Anbizioaren olatu garraitzetan bustitzen diren.

Euri zuriak sarea botatzen du itsasertz osoan,  
Eguzki ilaun batek herriak eta plaiak nabartzen ditu,  
Eta errepideak, non nekazariak barreka inguratzen diren babes bila,  
Ikazkinen egunak metatzetan dituzten gainetan.

Baina barreneraino iraizten zaizu oraindik, zure eskulanaren  
Arrandia bakoitza lausotuz, hitzak eta ezaugarriak ilunduz,  
Eta gogoaren koba iluna uzteko bide ezagun guztietatik  
Ez zara aldatu zu, bere buruaz  
Errukitzetan diren Jainkoaren kreaturetan madarikatuena.

### A Map of Europe

Like Leonardo's idea  
Where landscapes open on a waterdrop  
Or dragons crouch in stains,  
My flaking wall, in the bright air,  
Maps Europe with its veins.

On its limned window ledge  
A beer can's gilded rim gleams like  
Evening along a Canaletto lake,  
Or like that rocky hermitage  
Where, in his cell of light, haggard Jerome  
Prays that His kingdom come  
To the far city.

The light creates its stillness.  
In its ring Everything IS. A cracked coffee cup,  
A broken loaf, a dented urn become  
Themselves, as in Chardin,  
Or in beer-bright Vermeer,  
Not objects of our pity.

In it is no *lacrimae rerum*,  
No art. Only the gift  
To see things as they are, halved by a darkness  
From which they cannot shift.

### **Europako mapa**

Leonardori otu zitzaison bezala  
Ur-tanta batek paisaiak irekitzen dituela  
Edo dragoiak orbanetan kukutzen direla,  
Nire pareta ezkatatuak, airearen distiran,  
Europa kartografiatzen du bere zainekin.

Leihoko-koxka marraztuan  
Zerbeza-lata baten ertz doratuak, bere distiran,  
Canaletoko aintzira bateko arrastiri bat dirudi,  
Edo ermitauaren biziutoki harritsu hura  
Non, bere argi-zeldan, Jeronimo zarpaitsuak  
Otoitz egiten baitu Haren erresuma etor dadin  
Hiri urrunera.

Argiak baretasuna dakar. Uztai horretan  
Dena DA. Kafe-kikara pitzatu bat,  
Ogi-xerra partitu bat, urna mailatu bat  
Beren hartara antzaldatzen dira, hala nola Chardin-enean,  
Edo Vermeerren garagar-dirdiran,  
Ez gure errukiaren objektu.

Ez du *lacrimae rerum*-ik.  
Ez arterik. Dohain bat bakarrik,  
Gauzak diren-direnean ikusteko, itzuri ezinezkoa zaien  
Ilundura batek erdiburik.

### **Sea Grapes**

That sail which leans on light,  
tired of islands,  
a schooner beating up the Caribbean

for home, could be Odysseus,  
home-bound to the Aegean;  
that father and husband's

longing, under the gnarled sour grapes,  
is like the adulterer hearing Nausicaa's name  
in every gull's outcry.

This brings nobody peace. The ancient war  
between obsession and responsibility  
will never finish, and has been the same

for the sea-wanderer or the one on shore  
now wriggling on his sandals to walk home,  
since Troy sighed its last flame,

and the blind giant's boulder heaved the trough  
from whose groundswell the great hexameters come  
to the conclusions of exhausted surf.

The classics can console. But not enough.

**Itsas mahatsak**

Argitan bermatzen den bela hori,  
uharteez nekatua,  
goleta bat Karibean sigi-sagaka

doa etxera, Odiseo izan liteke,  
Egeoan barrena etxeratu nahian;  
aita eta senar hura

oroiminak jota, mahats desgisatu garratzen azpian,  
adulteroak Nausicaaren izena aditzen duenean bezala  
kaio guztien txilioan.

Honek ez dakar inorentzako bakerik. Gerra zahar hura,  
obsesioaren eta arduraren artekoa,  
ez da sekula akabatuko, eta iguala izan zaie

itsasoko alderraiari eta lehortarrari  
zeina sandaliak behatzekin igurtziz baitoa orain etxera,  
Troiak azken sugarra hasperendu zuenetik

eta erraldoi itsuaren arrokak uraska gainezkatu,  
olatu hazi horietan hexametro apartak ekarriz  
marea akituaren konklusioetara.

Klasikoak kontsolabide dira. Bainaz ez behar beste.

### Resumen

Derek Walcott, poeta, dramaturgo y pintor (Santa Lucía, 1930-2017), es una de las figuras más conocidas y reconocidas de la poesía caribeña. Fue ganador del premio Nobel de Literatura en 1992, un año después de la publicación de una de sus obras cumbre, el poema épico *Omeros*. La poesía de Walcott establece un vínculo entre el Caribe y la tradición occidental, un vínculo en el cual la mar, imagen poética repetida a lo largo de toda su poesía, cobra especial fuerza. En esta antología, compuesta por poemas de juventud del autor, también predomina la imaginería marina.

### Résumé

Derek Walcott, poète, dramaturge et peintre (Sainte-Lucie, 1930-2017), est une des figures les plus connues et reconnues de la poésie caribéenne. Lauréat du Prix Nobel de littérature en 1992, un an après avoir publié un de ses chefs-d'œuvre, le poème épique *Omeros*. La poésie de Walcott établit un lien entre tradition caribéenne et occidentale, un lien dans lequel la représentation de la mer, image poétique présente dans toute son œuvre, a une force particulière. Dans cette anthologie composée de poèmes de jeunesse de l'auteur, l'imagerie marine est très présente.

### Abstract

Poet, playwright and painter Derek Walcott (Santa Lucia, 1930-2017) is one of the best known and most praised figures of Caribbean poetry. He won the Nobel Prize in Literature in 1992, one year after the publication of one of his masterpieces, the epic poem *Omeros*. Walcott's poetry unites Caribbean and western traditions in a link in which the ocean takes on particular strength; it is a poetic image that is recurrent and significant throughout his poetry. In this anthology, comprised of poems from the author's youth, ocean imagery also predominates.